



## ESKAERA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Abenduaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (233 zk.) argitaratu da Debako Udalaren Idazkaria lanpostua (bigarren mailakoa), bitarteko izaeraz betetzeko oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia.

Deialdiaren oinarri arautzaileen 3.4 puntuan xedatzen duenez, eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

1. Nortasun Agiriaren fotokopia.
2. Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia.
3. Euskararen 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna (HE) edo baliokidea den egiaztatzeko agiria, deialdiaren zazpigarren oinarrian xedatutakoari jarraiki.
4. Lehiaketa faserako alegatutako merezimenduen zerrenda.

Horretaz gain, hamabigarren oinarriaren edukia kontuan hartuz, prozesutik sortutako lan poltsak Gipuzkoako toki entitateei laga ahal izateko, interesdunen baimena beharko da.

Horrenbestez, hautaketa-prozesuan izena emateko erabiliko den aplikazioaren mugak eta prozesuan sortzen diren eskabide-orriak (gure beharretara egokitu ezin ditugunak) direla eta, **hautaketa-prozesuan parte hartu nahi duten pertsona guztiak deialdiaren 3.4 oinarrian zehaztutako lehenengo hiru dokumentuak aurkeztu beharko dituzte [Debako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez](#).**

Era berean, agiri horiekin batera doan idazkian, eta deialdiaren 12. oinarrian jasotakoari jarraituz, parte-hartzaile bakoitzak adieraziko du bere datuak lagatzeko baimena ematen duen ala ez, baldin eta prozesuaren ondoriozko poltsak Gipuzkoako beste toki erakunde batzuei ematen bazaizkie.

Azkenik, eskabide-orriak lehiaketa faserako alegatutako merezimenduen zerrenda zehazteko eta datokion autobaremazioa egiteko aukera ematen duenez, ez da beharrezkoa alegatutako merezimenduen zerrenda erregistro elektronikoan aurkeztea.